

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

1328

AGINDUA, 2020ko otsailaren 12koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, honako hauek ezartzen dituen agindua aldatzen duena: laboreen marjina gordinak, Nekazaritzako Lan Unitateak (NLU) zehazteko modulu objektiboak eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustategietako gastu finkoen koefizienteak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ustategien Erregistro Orokorrari buruzko irailaren 27ko 203/2011 Dekretuak, 14.2 artikuluan, honako hau xedatzen du: «laneko errenta unitarioa kalkulatzeko, aldian-aldian eta ustategiaren dimentsioa, kokapena, orientazio tekniko-ekonomikoa eta ekoizpen-sistema kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzako nekazaritza-arloko sail eskuduneko titularraren agindu bidez, marjina gordinak, ustategiari dagozkion nekazaritza-laneko unitateak zehazteko modulu objektiboak eta ustategi horretako gastu finkoen koefizienteak finkatuko dira».

Arlo horretako araudia betez, marjina gordinak, nekazaritzako lan-unitateak zehazteko modulu objektiboak eta EAEko ustategietako gastu finkoen koefizienteak Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2016ko martxoaren 31ko Aginduaren bidez finkatu ziren.

Dagozkion estatistika-lanak egin ondoren, 2016ko martxoaren 31ko Aginduaren I. eranskinean beste abeltzaintza-ekoizpen batzuk sartzeko beharra hauteman da, hala nola zamalkatzeko zaldiak buruzkoak.

Agindu hau egiteko, kontsulta egin zaie Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei eta nekazaritzako elkarte profesionalei. Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Marjina gordinak.

Honako abeltzaintza-ekoizpen hauek sartzea Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2016ko martxoaren 31ko Aginduaren I. eranskinean (agindu horren bidez, laboreen marjina gordinak, Nekazaritzako Lan Unitateak (NLU) eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustategietako gastu finkoen koefizienteak zehazteko modulu objektiboak finkatzen dira):

Espezia	Mota	MGE	NLU/buru
Zaldiak	Zaldi heldua-kirola (Endurance)	1.910	0,0544
Zaldiak	Zaldikoak-kirola (Endurance)	1.390	0,0663

Bigarrena.— Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.— Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuari, hilabeteko epean, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 12a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.